



EHU

EHUren EKOIZPEN ZIENTIFIKOA: IZENDAPEN BIBLIOGRAFIKO BAKARRA

www.ehu.eus

SARRERA

Gertaera aski ohikoa da ikertzaileen eta beren lantokien izenak argitalpen zientifikoetan eta datu base bibliografiko nagusietan normalizaturik ez egotea. Egoera hori kaltegarria da oso, ordea, egileen eta erakundeen ikusgarritasuna murrizten duelako eta, hortaz, zailtzen du izugarri ikertzaile eta lantoki horiek jasotzen dituzten aipuak eta argitalpenak berreskuratzea, politika zientifikoa helburu duten datuak ezkutatzuz.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 15. artikulua ezartzen duenez, unibertsitate publikoetan, Estatuko Administrazio Orokorraren ikerketa-erakunde publikoetan edo beste administrazio publiko batzuen ikerketa-erakundeetan zerbitzuak ematen dituzten ikertzaileen betebeharra da beren jarduera zientifikoan diharduten erakundeen izena erabiltzea, erakunde horien barne-araudiaren eta sinatzen dituzten akordioen, itunen eta hitzarmenen arabera.

EHUaren Klaustroak 2026ko apirilean onartutako EHuko Estatutuen 2. artikulua ezartzen du unibertsitatearen izen ofiziala «Euskal Herriko Unibertsitatea» dela, edo laburki, "EHU".

Ohar horiek kontuan hartuta, dokumentu honen helburua da EHuko ikertzaileei jarraibide batzuk eskaintzea, haien izen pertsonalaren eta afiliazio instituzionalaren sinadura normalizatua egiteko formulak sustatzeko.

Arau hauek "Espainiar ikertzaileen laguntzarako eskuliburu proposamena, egileen eta erakundeen izen-deiturak argitalpen zientifikoetan normalizatzeko" [Propuesta de manual de ayuda a los investigadores españoles para la normalización del nombre de autores e instituciones en las publicaciones científicas] dokumentua erreferentzia gisa hartuta egin dira. Proposamen hori Granadako Unibertsitateak EC3 ikertaldeek eta CINDOC-IZGK-ren Analisis Cuantitativo de Ciencia y Tecnología (2007) taldeak egin zuten FECYT fundazioarentzat. Halaber, arau hauek osatzeko, kontuan hartu dira SCImago Research Group (2010) ikertaldeak "Euskal Herriko Unibertsitatearen ikerkuntza zientifikoaren nazioarteko ikusgarritasuna" [La investigación científica con visibilidad internacional de la Universidad del País Vasco] (Scopus, 2003-2008) dokumentuan emandako gomendioak.

Argitalpenetan afiliazio okerra aurkituz gero, zuzentzeko eskaera kudeatu beharko dute ikertzaileek dagozkien datu-base bibliografikoetan (adibidez, Web of Science edo Scopus) eta, hala dagokionean, aldizkari argitaratzailean bertan. EHuko Liburutegiak aholku eman dezake prozesu horretan.

ERAKUNDE AFILIAZIOAREN NORMALIZAZIOA

Zentzu horretan, **EHU**rekin lotutako langileen ekoizpen zientifiko guztietan (**IRI** eta **TEKAZEL**) unibertsitatearen **erakunde afiliazioa, Gobernu Kontseiluak onartuta**, honako hau izango da:

Izen-deiturak ¹

- ¹ [Ikertaldea (hala badagokio)], [unibertsitateko saila/institutua/egitura (hala badagokio)], [ikastegia (hala badagokio)], [(unibertsitatearen izena*) **EHU (nahitaezkoa)**], [helbide postala].

*Klaustroan onartutako unibertsitatearen izena erabiltzea::

- Euskal Herriko Unibertsitatea

* edo aukera hauetako bat (ikus 5. orrialdeko oharra)

- Universidad del País Vasco
- University of the Basque Country
- Université du Pays Basque

Beraz, unibertsitatearen aipamen bibliografikoa egin behar denean, aukeratutako izen luzeaz gain, izen ofizialaren forma laburtua EHU ere sartuko da beti.

ERAKUNDE AFILIAZIOAREN NORMALIZAZIOA

Lantokia zuzen izendatzeak ikastegiak eta erakundeak nazioarteko komunitate zientifikoan ikusgarriago egiteko bide ematen du, eta herrialdeen, erakundeen eta eskualdeen ekoizpenari, eraginari edo rankingari buruzko adierazle bibliometrikoen fidagarritasunari laguntzen dio.

Argitalpenetan erakundearen afiliazioa modu ezberdinetan agertzeak eragotzi egiten du unibertsitateko ekoizpen zientifikoaren benetako berreskuratzea. Arazo hau are kezkarriagoa da gure unibertsitatean; izan ere, erakundearen izen ofiziala Euskal Herriko Unibertsitatea, edo modu laburrean, EHU, izan arren, erakundearen ekoizpen zientifikoa hamaika modutara agertzen baita.

ERAKUNDE AFILIAZIOA

Egile guztiek **erakunde afiliazioa idatzi behar dute beti, nork berea**. Beti errespetatu behar da EHUn egiletza aitortzeko betebeharrak. EHUn langileek unibertsitatez kanpoko egonaldiak egiten dituztenean ere, jatorrizko erakundearekin duten afiliazioa mantendu behar dute. Modu berean, beste erakunde bateko pertsonalak egonaldiak egingo balitu EHUn, bertako baliabideak erabiliz, agerian utzi beharko da EHUn afiliazioa.

Emaitzen argitalpen guztietan egileak lotuta dituzten erakundeak esplizituki adierazi behar diren bezalaxe, ikerketa egiteko bide **emanduen laguntza edo finantzazio guztiak oro adierazi behar dira**.

ERAKUNDE AFILIAZIOAREN NORMALIZAZIOA

Ikertzaile askok uste duten arren erakundearen izena ingelesera itzultzeak nazioarteko ikusgarritasuna laguntzen duela, antzeman da horrek ekoizpen zientifikoa berreskuratzea zailtzen duela, hainbat modutara idazten delako eta transkripzio-akatsak egiteko aukerak areagotzen dituelako.



Univ. Pays Basque
Basque Country Univ.
Basque CTY Univ.

Beraz, **Klaustroan onartutako izendapena, Euskal Herriko Unibertsitatea**, erabiliko da lehentasunez, eta **Unibertsitatea beste hizkuntza batean aipatzea beharrezkoa den kasuetan**, argitalpenaren hizkuntza-bertsio desberdinak onartuko dira, **EHU** siglekin lagunduta beti.

Horrela, honako hau izango da unibertsitatearen izendapen bibliografikoa:

ERAKUNDE AFILIAZIOA	NAHITAEZKOA	EHU
	Proposatutako artetik bat hautatu	- Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) - Universidad del País Vasco (EHU) - University of the Basque Country (EHU) - Université du Pays Basque (EHU)

EHUko UNITATE AKADEMIKOAK. EGITURA MAILAK

Erakundeari dagokionez, egitura unitate bat baino gehiago izendatu behar direnean, honako egitura hierarkiko hau erabiliko da beti aipamen ordenaren izendapena egiteko:

AIPAMENAREN EGITURA MAILAK EHUN	1. TALDEA (hala badagokio)	Ikertaldearen izena
	2. SAILA, Ikerketa-institutua, Prestakuntza eta Ikerketa Unitatea (PIU), Doktorego eskola edo beste unibertsitate egitura bat (hala badagokio)	Izen ofizial osoa. Egiturak ingelesezko izen normalizatu bat badu, erabili ahal izango da hori sinaduran, ez bestela. Egituraren izenari dagozkion siglak erabili ahal izango dira, baldin eta normalizatuta badaude, eta, hortaz, ofizialak badira. Ezin dira erabili egituren izen ez-homologatuak.
	3. LOTURA duen ikastegia edo I+G+B erakundea (hala badagokio)	Izen ofizial osoa. Sigla idatz daiteke, baldin eta ofiziala bada eta normalizatuta badago. Ikastegia ingelesezko izen normalizatu bat badu, erabili ahal izango da hori sinaduran, ez bestela. Ezin dira erabili egituren izen ez-homologatuak.
	4. ERAKUNDEA (beti)	Unibertsitatearen izen luzea idatzi behar da eta BETI adierazi behar da izen ofizial laburra: EHU.
	5. POSTA HELBIDEA	Ahal bezain osatuen idatzi behar da. Egilea lurralde batekin fisikoki lotzeko aukera ematen du, bai eta komunikatzeko aukera ere.

EHUko UNITATE AKADEMIKOAK. EGITURA MAILAK

Erakunde afiliazioaren elementu guztiak koma bidez bereizi behar dira.

Izen-deiturak ¹

- ¹ [Ikertaldea (hala badagokio)], [unibertsitateko saila/institutua/egitura (hala badagokio)], [ikastegia (hala badagokio)], [unibertsitatearen izena (aukera bat hautatu) **EHU (nahitaezkoa)**], [helbide postala].

Unitateen edo egituren izen normalizatua, siglak (hala badagokio) eta posta-helbidea aurkitzeko, horien web orriak kontsultatzea gomendatzen da www.ehu.eus webgunearen bidez:

HAIBATERAKUNDEREN MENPEKO IKERGUNE MISTOAK

Hainbat erakunderen menpeko ikergune mistoen kasuan, aurrez aipatutako antzeko irizpideak baliatuta, ikertaldearen (hala badagokio), sailaren edo beste unibertsitate egitura baten (hala badagokio) izena adierazteaz eta ikergunearen izena zehazteaz gainera, **zein erakunderen menpekoa den adierazi behar da.**

Izen-deiturak ¹

- ¹ [Ikertaldea (hala badagokio)], [unibertsitateko saila/institutua/egitura (hala badagokio)], [ikastegia (hala badagokio)], [**EHU (nahitaezkoa) eta bestelakomenpeko erakundeak (nahitaezkoa)**], [helbide postala].

EHUko UNITATE AKADEMIKOAK. EGITURA MAILAK

Osasungintzaren arloko ikertzaileen kasuan, hala nola ikerkuntzarako fundazio, institutu, I+G+B ikergune propio zein atxikietakoen kasuna, egungoak nola gerokoak, EHUri lotutako langile akademikoak direnean, **unibertsitatearekin duten afiliazioa eta gainerako erakundeekin dutena** (afiliazio bikoitza) **adierazi beharko da**.

Afiliazio bikoitza (jatorrizko erakundea eta helburu-erakundea) sinadura zientifikoan adierazi beharko dute ondokoek: **afiliazioa hitzarmen bidez erregulatuta duten unibertsitatearekin lotutako langile guztiek eta EHUko laguntzaile akademiko gisa** izendatutako langileek.

Izen-abizenak ¹

- ¹ [Taldea (hala badagokio)], [Saila/Institutua/Unibertsitate egitura (hala badagokio)], [**I+G+b institutua/Ospitalea** (derrigorrezkoa)], [(Unibertsitatearen izena (aukera bat hautatu) **EHU (derrigorrezkoa)**], [Posta helbidea]

EHUn egonadirik egiten duten ikertzaileek afiliazio bikoitza adierazi beharko dute, bai jatorrizko erakundean nola helburukoan.

Izen-deiturak ^{1,2}

- ¹ [Ikertaldea (hala badagokio)], [unibertsitateko saila/institutua/egitura (hala badagokio)], [ikastegia (hala badagokio)], [unibertsitatearen izena (aukera bat hautatu) **EHU (nahitaezkoa)**], [helbide postala].
- ² [Jatorrizko unibertsitatea edo I+G+b erakundea], [Posta helbidea]

EHUko UNITATE AKADEMIKOAK. EGITURA MAILAK

EHUrekin lotutako Ikerbasque ikertzaileen kasuan, horiek unibertsitatearekin duten afiliazioa aipatutako erakundeko afiliazioarekin batera adierazi beharko da.

Izen-deiturak ^{1,2}

- ¹ [Ikertaldea (hala badagokio)], [unibertsitateko saila/institutua/egitura (hala badagokio)], [ikastegia (hala badagokio)], [unibertsitatearen izena (aukera bat hautatu) **EHU (nahitaezkoa)**], [helbide postala].
- ² IKERBASQUE, Basque Foundation for Science

PLATAFORMAK ETA SARE AKADEMIKOAK

Kontutan hartuta ikerkuntzarako plataforma eta sare akademikoek duten garrantzia eta ekoizpen zientifikoa sortzen duen EHUko pertsonalak horietan hartzen duela parte, ezinbestekoa da kasuotan erakunde afiliazioari buruzko arautegia bete dadin. ResearchGate, Researcher ID, Google Scholar Citations, Academia.edu, Mendeley edo beste edozein plataformatan erregistratuko litzatekeen ikertzaileak Euskal Herriko Unibertsitatearekiko (EHU) afiliazioa agertu beharko du modu zuzenean, ondoan erakunde postaren helbidea duela.

ORCID



EGILETZAREN SINADURAREN NORMALIZAZIOA

Ondoren adierazten diren arauak ikertzaileek argitalpen zientifikoetan sinatzeko moduari buruzko aholkuak dira, egiletzaren sinadura gehiago normalizatzeko asmoz. Egileek argitalpen guztietan beren izena beti forma eta grafia berean idaztea garrantzitsua da.

Horrez gainera, kontuan hartu behar da datu base bibliografikoek akatsak egiten dituztela askotan jatorrizko dokumentutik beren erregistro elektronikoetara informazioa transkribatzean, batez ere ingelesezko izenen egituretara egokitutako indexatze lanetan. Hortaz, honako hau da Web of Science (WOS) de Clarivate Analytics datu baseetan aplikatutako indexazio prozedura:

Sinadura aldizkarian	Indexazio modua WOS datu-basean	WOS datu baseak aplikatutako indexazio metodoa
Antonio Caballero A Caballero	Caballero A	Deiturak edozein egitura duela, WOS datu baseak azkeneko zatia hartzen dute deitura gisa. Gainerakoak, atzeratutako inizial gisa prozesatzen dira.
Antonio María Caballero Antonio M Caballero A María Caballero AM Caballero	Caballero AM	Idem
Antonio María Caballero Plasencia Antonio M Caballero Plasencia A María Caballero Plasencia AM Caballero Plasencia	Plasencia AMC	Idem
Antonio María Caballero-Plasencia Antonio M Caballero-Plasencia A María Caballero-Plasencia AM Caballero-Plasencia	Caballero-Plasencia AM Caballero-Plasencia AM Caballero-Plasencia AM Caballero-Plasencia AM	Azkeneko atalak lotzen dituen marrak adierazten du atalok elementu bakartzat hartzea.
Juan Luis Del Árbol Juan Luis Del Árbol Navarro	Arbol JLD o bien Delarbol JL Navarro JLDA	Izena deiturekin lotzen duten partikulak dituraren zati gisa hartzen dira.
María González y Rodríguez	Rodríguez MGY	Deiturak lortzen dituzten partikulek ondorio ilogikoak sortzen dituzte espainiar izenetan.

Iturria: Ruiz-Perez et al. (2002)

IZEN-DEITURAK

Gomendatzen da izen bibliografiko bakarra hartzea; hau da, lan guztiak beti modu berean sinatzea. Komeni da ikertzailea modu argienean identifikatuko duen eta gainerako pertsonengandik bereiziko duen sinadura hautatzea.

Gomendatzen da honako sinadura mota hauetakoren bat erabiltzea:

Ponteizena Izena1 IN1	Izena modu osoan (Izena1) erabiltzea erabilgarria da balizko homonimoak bereizteko.
Ponteizenkonposatua (aukera2) Izena1 IN2 IN1 IN2	Izena modu osoan idaztea aukeratzen bada, argitalpenak lehenengo izen osoarekin eta bigarren izenaren inisialarekin sinatzea gomendatzen zaie egileei. Horrela, datu baseek bigarren izena lehenengo abizen gisa interpretatzea saihestuko da.
Ponte izen konposatua (aukera2) Izena1IN2 Izena1-partikula-Izena2 IN1IN2	Izena modu osoan erabiltzea aukeratzen bada, sinaduretan izena lotzen duten preposizioak edo artikulua ez aipatzea gomendatzen zaie egileei, indexazio eta berreskuratze lanetan arazo asko sortzen baitituzte. Izenaren partikulak (artikulua, preposizioak...) mantendu nahi badira, gidoi bat idatzi behar da horien artean.

DEITURAK

Deitura bat adierazi Deitura 1	Izen bibliografikoan deitura bakarra erabiltzea baliagarria da ezohiko lehenengo deitura duten ikertzaileentzat.
Deitura bi adierazi Deitura 1-deitura 2	Lehenengo deitura ohikoa denean, berriz, bi deitura adieraztea gomendatzen da. Kasu horretan, marratxo bat idatzi behar da bi deituren artean, datu baseek oker ez indexatzeko azkeneko deituraren arabera (marratxoak adierazten du lehenengo deitura ez dela izen konposatu baten bigarren elementua).
Partikularik duten deiturak Deitura 1-partikula-deitura 2	Egileak deiturak lotzen dituzten partikulak mantendu nahi baditu, izenaren osotasuna gordetzeko, marratxo batez lotuta idatzi behar dira beti
Partikularik duen lehenengo deitura Deitura 1-deitura 2 Partikula-deitura 1-deitura 2	Egileak lehenengo deituraren arabera indexatzea nahi badu, ez ditu adierazi behar deituraren partikulak. Partikulak mantendu nahi badira, horiek marratxo batez lotuta idatzi beharko dira beti.

Nolanahi ere, garrantzitsua da beti modu berean sinatzea eta deitura baten edo biren erabilera aldakorra saihestea.

PARTIKULAK ETA MARRATXOAK ZUZEN ERABILTZEKO MODUA

JATORRIZKO IZENA	GOMENDATUTAKO SINADURAK	AZKEN FORMA WOS DATU BASEAN
Carlos García de la Torre	Carlos García-de-la-Torre Carlos García-Torre	García-de-la-Torre C García-Torre C
María del Mar Valero Ruiz	María M Valero-Ruiz	Valero-Ruiz MM
Emilio de la Banda García	Emilio Banda-García Emilio de-la-Banda-García	Banda-García E de-la-Banda-García E
Emilio Delgado López-Cózar	Emilio Delgado-López-Cózar	Delgado-López-Cózar E
María Teresa García-Abad García	María-Teresa García-Abad-García María T García-Abad-García	García-Abad-García MT García-Abad-García MT

PARTIKULAK ETA MARRATXOAK OKER ERABILTZEKO MODUA

JATORRIZKO IZENA	SINADURA EZ GOMENDATUAK	AZKEN FORMA WOS DATU BASEAN
María del Mar Valero Ruiz	María del Mar Valero Ruiz	Ruiz MDMV
Carlos García de la Torre	Carlos García de la Torre	Torre CGDL o bien DelaTorre CG

Iturria: Ruiz-Perez et al. (2002)

ADIBIDEAK

Delgado López-Cózar*, Emilio; Torres-Salinas, Daniel**; Jiménez-Contreras*, Evaristo; Ruiz-Pérez, Rafael*

* EC3: Zientziaren eta Komunikazio Zientifikoaren Ebaluazioa Bibliotekonomia eta Dokumentazioa Saila
Granadako Unibertsitatea

** Ikerketa Mediko Aplikatuaren Zentroa. Nafarroako Unibertsitatea

Juan José Dolado (1), Antonio García-Romero (2) eta Gema Zamarro (3).

(1) Ekonomia saila. Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea

(2) Ekonomia saila. Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea eta UOC

(3) CEMFI

Christina Scheel (1) and Robert A. Weinberg (1,2,3)

1 Whitehead Institute for Biomedical Research, Cambridge, MA

2 Department of Biology, Massachusetts Institute of Technology, MIT, Cambridge, MA

3 Ludwig Center for Molecular Oncology, MIT, Cambridge, MA

ERREFERENTZIAK

EHU (2026): Estatutos de la EHU, aprobados por el Claustro de la EHU el 21 de abril de 2026, https://www.ehu.eus/documents/d/guest/ehu_estatutuak_v10_indd-21_pr3

ESPAÑA: Ley 14/2011, de 1 de junio, de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación. Boletín Oficial del Estado, 2 de junio de 2011, núm. 131.

FECYT (2007): Propuesta de manual de ayuda a los investigadores españoles para la normalización del nombre de autores e instituciones en las publicaciones científicas.

MOYA ANEGÓN, F. (2010): La investigación científica con visibilidad internacional de la Universidad del País Vasco (Scopus, 2003-2008).

RUIZ-PEREZ *et al.* (2002): Spanish personal names variations in national and international biomedical databases: implications for information retrieval and bibliometric studies. *J Med Libr Assoc*, 90:411-430.

ALIAGA, FM., CORREA, AD. (2011): Normalization trends of authors' names in scientific publications. *RELIEVE Rev Electron Invest Eval Educ*, 17(1):1-10.

ORDUÑA-MALEA, E. *et al.* (2017): The lost academic home: institutional affiliation links in Google Scholar Citations. *Online Inf Rev*, 41(6):762-781.

ORDUÑA-MALEA, E. (2009): Variation in Spanish authors' names in university Open Access repositories with respect to different fields of knowledge. *Rev Esp Doc Cient*, OCT-DEC;32(4):9-33.